

**MARIA GOIRI ERAIKINEAN IKERKETA
ESPARRUAK ESLEITZEKO DEIALDI PUBLIKOA**
Behin-behineko ebazpena

2015eko abenduaren 14an, Ikerketaren arloko errektoreordetzak eta Bizkaiko Campuseko errektoreordetzak batera publikatu zuten

**MARIA GOIRI ERAIKINEAN IKERKETA
ESPARRUAK ESLEITZEKO DEIALDI PUBLIKOA**

Eskaeren ebaluazioa egiteko izapidea amaitu ondoren, **HONAKOA ERABAKI DUTE:**

Behin-behinean onartutako eta baztertutako eskaeren zerrenda Ikerketaren arloko errektoreordetzaren eta Bizkaiko Campuseko errektoreordetzaren web atarietan argitara dadila agintzea.

Onartutako eskaeren kasuan, ikertzaile nagusiek **2016ko irailaren 1etik 13ra arte (biak barne)** laguntza hartzeko edo hari uko egiteko epea izango dute. Erabakia posta elektronikoz jakinarazi beharko dute Ikerketaren arloko errektoreordetzara mezua igorritz: rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbidera mezua igorritz: vrinvestigacion@ehu.eus

Aldi berean, baztertutako eskaeren kasuan, **2016ko irailaren 1etik 13ra arte (biak barne)** epea izango dute ikertzaile nagusiek alegazioak aurkezteko. Idazkiak Ikerketaren arloko errektoreordetako Ikerketaren Gestioko Zuzendariari zuzendu beharko dizkiote.

Alegazioak paper euskarrian aurkeztu beharko dituzte **nahitaez** Unibertsitatearen Erregistro Orokorrean, edo bestela, Correosen bulegoetako batean, bidalketa administratiboaz baliatuz, hau da, gutun-azal irekian eta ziurtatutako postaz hurrengo helbidera bidaliz:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)
Errektorego eraikina
Sarriena Auzoa, z/g
48940 - Leioa (Bizkaia)

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen bidetatik at jasotako zuzentze guztiak baztertuak izango dira.

Leioan, 2016ko uztailaren 28an


**FERNANDO PLAZAOLA
MUGURUZA**
Ikerketaren arloko errektoreordea


CARMELO GARITAOINAINDIA GARNACHO
Bizkaiko Campuseko errektoreordea

MARIA GOYRI

TALDE ESKATZAILEAREN OTRI KODEA	EBILI (m2)	ESPAZIO BEHARRA	ESLEITUTAKO LOKALA
GIC10/114	200	80	2.07-2.08
GIC10/131	182	80	2.01
GIC10/165	36	0	EZ DU ESPAZIORIK LORTU
GIC10/46	97	58	2.06
GIC10/58	112	81	2.05
GIC12/119	208	50	2.02-2.03
GIC12/162	142	42	2.07-2.08
GIC12/24	200	12	EZ DU ESPAZIORIK LORTU
GIC12/25	116	1	EZ DU ESPAZIORIK LORTU
GIC10/107	132	0	EZ DU ESPAZIORIK LORTU
GIC10/78	166	99	2.02-2.03
Talderik gabe	-	-	-

Oharra: Eusko Jaurlaritzak onartutako eta finantzatutako ikertalderik gabe aurkeztutako eskaria baztertu egin da deialdiko 6.1 baldintza bete ez izateagatik.